

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Deialdia zabaltzea, hamaika plaza txanda irekian oposizio bidez betetzeko; plazen ezaugarriak: Administrazio Orokorreko eskala, administrazio klasea, C1 taldea.

Alkate jaunak, 2413/2025 Dekretua eman du, maiatzaren 30ekoa. Bertan, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Deialdia zabaltzea Administrazio Orokorreko Eskalako (Administrari Klasea, C1 Taldea) hamabost (15) plaza bete arte. Izan ere, zenbait plaza huts egon dira administrarien lanpostuetan eta 2024 eta 2025eko EPEetan onartu dira, honela banatuta:

- Txanda irekian: 10 plazari 2. hizkuntza-eskakizuna dagokio, nahitaezkoa.
- Txanda irekian: plaza bati 3. hizkuntza-eskakizuna dagokio, nahitaezkoa.
- Txanda irekian desgaitasuna duten pertsonak: 4 plazari 2. hizkuntza-eskakizuna dagokie:
 - 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen plaza 2.
 - 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa ez duen plaza 2.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Hirugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2025eko ekainaren 10ean.— Alkatea, Asier Iragorri Basaguren